

«EUSKALDUNENTZAT GRAMATIKA EUSKERAZ»

Fernando Mendizabal-ekin hizketan

No dudamos en calificar de acontecimiento la aparición de esta escrita enteramente en euskera y presentada según las exigencias pedagógica y didáctica moderna. No es precisamente exacto lo que el entrevistador, a saber, que es la primera Gramática que se ha escrito en euskera. Ahí están, en los tiempos viejos, las de Harriet y Etche de Sara; y en tiempos más cercanos a nosotros la de Azkue (B. Izkindea) y la del escolapio P. Lerchundi. De todos modos, si es que necesitábamos una adaptada a las exigencias actuales, y Fernando nos la ha dado.

Euskaldunentzat Gramatika, Fernando Mendizabal-ek Arantzazu-n argitara-berria, egillearen eskuetan ikusi dut lehengo aldiz. Alemania-ko illuntza hotz eta hillargi beteko batean. Kale ertzean zegoan Fernando, zein mundik agertuko; alkarri hitz emanda geunden baiño minutu pare bat lehenago, ni arbolartetik azaldu nintzanerako, itxaroten hotz gogortuta zegoen hura. Berekin zekarren **Gramatika**. Lehenengo euskerazko gramatika. Eta euskeraz oso liburu on bat egin dala esateko eseri naiz idaz-maikiñaren aurrean.

Gramatika hau ikasi ezik irakurri ere egin leikeana da, ta horixe da miresgarriena: ez da obra elkor bat. Atsegiña euskera, presentazio argia. Pedagogiaren aldetik biziki landua. Bai idazlea, gramatikazko sistima erreki ta garbi azaltzen, eta bai inprimatzaillea eta "marrazkigillea" edo dibujogillea, X. Egafia (oso ongi, infantilismoan erori gabe) saiatu dira bene-benetan pedagogiazko obra on ta onurakor bat asmatzen. Areago, pedagogiazko obra on hau primerako literatur-obra bat ere ba dala ikusten da irakurri ala. Ikasgaia koloretan ematen zaigu; saiaketak eta irakurkizunak (ipuin, bertso, etab...) gero orri zurian. Aditzaren errez-tapenak, sufijazio ta deribazio azalpen txit egokiak, terminologia garbia, sistimazko taula txukunki eratuak, ipuin paregabeki aukeratuak, ez dira liburu honen edertasun zoragarriko pitxi banaka batzuk besterik. Agian pixka-pixka bat goi-herritartsu dala, ipuifetan batez ere? Mutiko gazteei euskera irakasten saiatu izan danak bezela esan behar dut, ohore ta goresmen zor zaiola biziki **Euskaldunentzako Gramatikari**.

Hillargi beteko gau bat eta egun bat egon gera, liburu hau ta liburuarekin lotuak dauden euskerazko goraberak xeheki begiratzten.

—Liburu sortu, esaten zuen Mendizabal-ek, milla premik sortu du: euskal umeeri espainera ta latina erakusten ari nintzala gertatu zitzaidan, erderaz ezin adierazi ni-tuela gramatika-gauzak, eta euskeraz adierazi beharra. Horrela sortu nuen gramatika-terminologia, beti umearen ulertze-endarrek mugatzen mindutela. Horrezaz gainera, aspaldidanik somatuta neukan euskerazko gramatika baten premia, euskaldun hutsei batez ere euskera ta euskeraz pentsatzen irakasteko. Umeak izan dira gramatika

honi erreztasun-neurria jarri diotenak.

—Ez da erreza umeari moldatzea!

—Neronek dakit hori ifiorik baiño obeto, uste dut. Eta horretzek poztan nau: hartu dudan alabantzarik handiena ta pozgarriena Lafitte Jaunarena izan dut, eta "liburu guttia hasieratik azkeneraifio nekerik gabe ulertzeko moduan dagoela" esaten zidan.

—Beraz ongi iruditu zaiou zure liburua Lafitte gramatikariari?

—Baietz dirudi. Eta esan ere egingo nuke behorrek eman dion pozak ahoa berotu-edo egin diola, ze sekulakoak esaten dizkit. Nik neuk, egia esan, ez dut uste horren goiko apalean jartzeko lana danik. Liburu hori egosi duan labearen beroa, au da, euskararen ganako maitasuna, hori bai guri guriazan. Gañerakoa? Horra, hartu ta ikusi...!

—Ikastoletarako egokia izango litzake, orduan zure gramatika?

—Ohar bat egingo nizuke hontaz. Ikastoletako umeak hainbat klasetakoak dira. Oso txikiak batzuk, eta beraz gramatikarekin hasterik ez daukatenak. Kozkorragoentzat, gramatika ikasten-eta hasten diranentzat, gutziz egokia gerta ditekela nirea uste dut. Hortik hasi ta aurrerako euskera-ikasleentzat. Batez ere alfabetatze-kanpaiarako gerta ditekela aproposa ta onuragarri gramatika hau. Erdal eskoletako batxillerraren lehenengo, bigarren ta, beharbada, irugarren kursoko gramatika-maillak ematen balditu nire honek.

—Baña batxillerrarako planak, beraz legeak eskatu bezelako izateaz gainera, pedagogiazko izan behar du gramatika batek. Beraz euskaldunari egokitutakoa. Baña zure gramatika, lanean neronek lehenago ikusi zindudanez eta orain ere antzeman lezaiokeanez, espainerazko, frantsesezko ta alemanezko eskola-gramatikak erabili az egin-dakoa da.

—Egia da hori eta konparaziozko lan horrekin asko irabazi dudala uste dut Gramatika horiek bezain ona ta pedagogiazkoa egitea izan da nere asmoa. Baña beti ere euskaldun umearentzat egokitua. Umeak bere barnean daraman euskal-mundua esaiñean-esaiñean eta konturatu gabe sakontzen, aberasten, eta sistemaritzen lagunduo dion ikas-liburuia egiten alegindu naiz, Nire begien aurrean beti eskola-umeak egon dira, ta ume euskaldun hutsak hain zuzen ere. Bederatzi urte aritu izan naiz horiekien, eta horientza-

koxe asmatuta dago nire gramatika.

—Gaur, halare, guztiok gera eskola-ume ta alfabetatu beharreko: idazle-edo geranok aurrenik, andereño ta hartarako ari diranak, eta, pare bat kendu ezker Euskal Herri guztia oso-osorik.

—Hortan konforme nago funtsean. Euskaldunoi, gure eskolarik ezean, guztioi nabari zaigu gramatikaren falta nabarmena. Halare, nik ez dut nere gramatika, nagusienik behintzat, idazleentzat pentsatu. Andereñoek-eta gaur darabilzkiten premietan bai, pentsatu nuen, eta liburu honekin laguntza handia izan dezaketela uste dut. Baiña andereñoek berek ere asko lagundu didate, argitaratzeko-ta.

—Ez zenuen zure gramatika Gipuzkoa-ko bakarrik bururatuko?

—Liburua egitekoan, ondo ere gogotan eukitakoa dut batasunaren arazoa. Eta lanean aurreratu ala atera dudan ondorio pozgarrietako bat, euskeraren batasun-erako ikusi nituen ahalbideak izan dira. Euskeraren batasuna egin ditekeala, eta berez ez dala jendeak askotan uste bezain zailla.

—Segun-eta nolakoa egin nahi, izango litzake zailla batasuna.

—Hori! Ehunetik ehun bateratu nahi duenak, bateratu ez baiña berdindu egin nahi du, ta hori oso zailla da; hizkuntza biziari begirunerik baldin bazaio, batez ere. Gaurko euskeraren egoeran oinharritzko batasuna egitea, euskerak berak ematen dituen ahalbideetatik, erreza da: esaterako deklinazioan, xehapen koxkor pare bat utzi ezker, batasuna ia eginda dago. Edo behintzat batasun hori burutzeko osagarri ta elementuak jarrita **daude**.

—Nun, ordea, ta zeñek jarrita? Literaturan, ala bai herrian bartan ere?

—Literaturan behintzat bai, eta euskalkiek ere gero ta gehiago ezagutzen dute elkar. Idazle-jendeak nahi baldin badu, deklinazio kontuan batasuna eginda dagoke ehunetik larogeitamarstu batean. Berdintsu dago loturaizki edo konjuntzioekin, hitzondokoekin, adberbiuekin, etabar... Nere ustez, hitzak **osorik** idatzi utsarekin eta gramatika puxka bat ikastearekin, % 75-bat bateratuta izango genduke gure euskera, eta iñori batere erresumifnik eman gabe gaiñera.

—Zer izango litzake zuretzat euskera batua?

—Euskal Herriko jenderik gehienek nekerik gabe elkar ulertzeko moduko euskera, euskera batua da, berdindua ez bada ere. Horregatixe, ba, batasunerako ez dago jende horiek guztiek, beti ta mailla guztietan, euskera batbera ta berdiña egiteko ta idazteko premiarik batere. Hauxe ikusi dut nik Bizkai-an ta Naparroa-n ibilli maizenean. Nere hitzaldietan nik ez dut haien euskeraren berdiña egin, baiña ondo ulertu izandu dugu elkar. Beraz, batasuna ta berdintasuna ez dira gauza bera. Batasuna beha-

rezkoa dugu, ta erreza da. Berdintasuna egokia litzake, ta ez da beti erreza. Ezta beti egokia ere: konparazio baterako, bizkaitarrek —**gaz eta guk**—**kin** erabiltzen badugu, ez litzake gramatika-gauza horietako bat baztertu eta bestea nagisierazi behar iñola ere. Zertarako bi?, galdetzen da. Baiña eskualde handi handi baten zabaldua dagoan —**gaz** hori zertarako kendu eta bestearekin bakarrik gelditu? Errezago da, ta egokiago ere bai, justiazkoa dan ezker, guk haienaren berri ikastea, haiek danak berena utzi eta gurea bakarrik hartzea baiño. Hitz bat edo beste utzi ta bestena hartzea erreza da, baiña gramatika-gauzak utziaraztea oso nekeza.

—Baiña aditzak sortzen ditu buruhaustarik gogorrenak alare, eta hortan berdintasuna beste batasunik ez dagoela esan leike.

—Bai, berdintasuna iritxi beharko du hortan euskera batuak. Nire ustez irizpide ta kriterio argi ta tinkorik gabe gaude oraindik, beste puntu askotan ere bai, baiña hemen batez ere. Hortik sortzen dira diferentziarik gehienak. Batu beharrekoa **gaurko** euskera da, ez atzokoa, naiz-eta hau bixtatik galdu ezin badezakegu ere. Hitzekin egiten ari geran aukera bera jarraitu beharko litzake, nire ustean aditzarekin. Forma asko dago gauregunean erdi-hilda edo indar gutxikoa, ta bere esanahia beste aditzaldi edo formetara aldatu duena. Nire ustez, **bizienari** heldu behar genioke batasun-biderako aukera egitekoan. Iñun izatekotan hementxe erabili beharko litzake **bizienaren** aldeko irizpidea, ta ez zeñek xeapen gehiago adierazi ditzakeanarena.

—Nire erara esateko, standard-euskera gipuzkoera billakatu dala dirudi, ezta? Beraz, gipuzkoerazko aditza aberatsena ez bada ere soziologiarekin begiratuta behintzat gipuzkoerak dirudi aditzean, eta aditzean batez ere, batasunaren oinharria eman dezakean bakarra. Honen kontra aberastanaren, klasikutasunaren-eta beste arrazoi asko, ta ukatu ezizneko, azaldu arren. Hori al da?

—Ni baiño gehiago zan Altube, ta haren arrazoiak ontzat ematen ditut nik ere. Gipuzkoa Euskal-Herriaren erdian egoteak etab... gipuzkoerarenganako joera sortuta dauka. Hau gertatze bat da, eta euskalkien berezko joera bezala agertzen da hau gaur-egun, eta hortan gramatikalaria ez zaio hizkuntza-soziologiarekin aritzea baste biderik gelditzen. Erdirako joera hau beste norabait eraman nahi izateak sesioa besterik sortuko ez ote lukean bildur naiz; ez batasunik ordea. Bide guzti horiek artifizialeki iruditzen baizaitzit. Puntu zaillegia ta luzeegia da hau, baiña derrigor hitz batean esan behar badut, nik ere gipuzkoerazko aditza hartuko nuke oinharritzko batera-bide bezela.

(“Zeruko Argia”-tik)

JOSE AZURMENDI
(Alemania-ko Münster-etik)